

# Txakurrak

IÑIGO ARANBARRI



«ERTZAN-TZA txakurtzen ari da» lema hartatik oraingo «Txakurrak» honetara dagoen alde bera dago

kartela lasa jartzetik filmatu beharreko atxilotetara. Proportzio berean hasi da mataza kalean. Ez txakuntzakoena eta informatiboena bakarrik. Hizkuntzarekiko kezka ere bai.

Eta parabolikarik ezean guretik kanpo zer zegoen jakin nahian telebista espainola biztu genuenok bakarrik izan gara aukeratuak. Eta hamar gipuzkoarretik bederatzik. Perros. Honela deitzen zaiela ertzainei berarekin sekula baino atxiloteta gehiago ekarri dituen kartelean.

Alferrikako lanean aritu gara alegia. Ez duela balio gure argotak. Euskaraz txakurra perro delako. Ez polizia espainola. Hain erraz, hain simple. Pobrea da gure hizkuntza. Ez du nibelik beretzien, ez du hirirako balio. Hemendik aurrera ez dute lan makala jarri egunkari honetako langileei. Ikustekoa izango bait da nola itzultzen duten madero. Eta pasma? Eta fle? Erdara asko jakin behar da horretarako. Lan zaila itzultzailearena. Erruki hemendik aurrera TVEn zein DVn euskaldunon dibertsitateak datu linguistiko gehiago bitzean Iparaldean ataririk oilategira sartu direla oharztean. Astoa behar baita izan CRSari oilaskoa deitzeko.

Mingarría da gure hizkuntza. Hitz berean batu ditzake iragana eta oraina. Txapelokerra eta txapelgorria. Horregatik ezkatatu dizkiguz Gasteizko Barne Sailak. Kolekzionistezako kartelak. Kolekzionistezako datuak. Heriotze ilun birenak. Oilaskoek zaunka egiten duten hizkuntza honetan ere garbi eman nahi ez direnak.

# Ordenu berria

TXILLARDEGI



Ez genekien 'Ordenu Berria' zer zen.

Baina piskanaka, eta yankiek emandako erakaspén argisuei esker,

norat ari garen ikusten hasi gara. Lehen Kuwait-en arazoan erakutsi ziguten bidea: Estatu handiek ez dute herri txikirik iresteko inolako eskubiderik. Auto-Determinazioa gidari, Irak-ek ez du Kuwait okupatzeko eskubiderik. Eta kuwaitarren eskubidea segurtatzeko mundu-gerla bat hasi behar bada ere, aurrera.

Segida ongi ezagutzen du irakurleak. Kuwait-en, ordea, segurtatzeko 'naziorik' ez zegoen: Abu-Dhabin-en ez dagoen bezala. Horretaz gero, eta Kuwait-eko biztanleria nagusia palestindar etorkinak direnez, badirudi interes gehixeago merezi lukeela palestindarren egoerak... Hitz batez: Auto-Determinazioa ez, petrolio-putzuen kontrola baizik. Ordenu-Berriak, bigarrena bide du gidari.

Baina orainoan aitzinago joan da Bush, Bapatean, eta Auto-Determinazioaren apostolu izan ondoren, Xiiten aldeko gartsu bihurtu zaigu. Berak egin hauek 'pragmatismo' oso-osoaen aldeko predikua egin ondoren, orain islamdarren aldeko fin agertzen zaigu. Hori bakarrik ez: sunitzen alde ez, baizik-eta preseski gerla hasteko prest dago Xiiten alde etortzeko... «Ez dut jasango irakiarrek halako paralelotik behera etortzerik». Eta Kitto.

Halako batez, Husseinek hau esango balu bezala: 1/ Zernahi gustata ere, Kaliforniaren Askatasuna defendituko dut. Kaliforniak auto-determinatzeko eskubide sakratua du. 2/ Floridako calbinistak defendituko dituen, gerla egiteko ere prest naug. Ezin onar dezaket New Yor-etik etor daitezkeen luthertar hegazkinak, 34 paraleloa gurutzatzerik. 3/ Luthertarren harrokiaren kontra, calvinistak defendituko ditut su-ta-fu.

Horrelakorik gertatzea, hau erantzun bide liteke: «zer debru ari da hor Hussein? Noiztanik da Kalifornia nazio bat? Nondik heriotze zaio Husseini kristau elizen artean calbinistak preseski defenditzeko grina harrigarri hori?»

# ABC

## Hutsean lerrotatuak

Gaur Jakartan hastekoa den lerrotatu gabeko estatu gailurrak bikain erakusten du zeinen patetikoa den imoiz zentzurik izan ez zuen eta egun nora jo ez dakien erakunde baten etorkizuna. Zer espero daiteke halako izakiak bildu nahi dituen elkarte batetik, hots, Saddam Hussein, Kim Il Sung, Muamar Dagafi eta Fidel Castro? Beren buruari 'lerrotatu gabeko' deiturikoa beti izan ziren edozertarako erabiliak Soviet Batasunaren eskutan. Hau zendu denean, erakundearen etorkizuna zalantza-koa da. Bere egungo presidentek, Jugoslaviak, jadanik du forman 1989ko abuztuan Belgradon erakundeko lehendakaritza hartu zuen haren forma. Gaur, nahiz Balkanetako gerra den Indonnesia bildutako estatuburuaren agendan gai mamitsu bakarra, Jugoslaviako presidentea, Dobrica Cosic, joan ere ez da egiten. Galdu ere ez du ezer galtzen.

EDITORIALA



ZULET / EL CORREO ESPAÑOL

# Diario 16

## Ajuria Eneko Itun hauskorra

Auzia da ea 88ko urtarri-lean bakerako sinatu ziren printzipioak baliozko diren egun ere demokrata guztientzat. Izan ere, ez Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ), ez Partidu Sozialistak (PSE-PSOE), ez Eusko Alkartasunak (EA), ez Euskadiko Ezkerrak (EE), ez Partidu Popularrak (PP) ez Unidad Alavesak (UA) ez dute eskatzen ETArekin negoziatzea. Are gehiago, indar politikoetako

buruzagiek uste dute 'gai politikoak' ebatzi herriaren borondatearen ordezkarien artean ebatzi behar direla; hau da, euskal Legebiltzarrean.

Era berean, inork ez du ukatzen Madrilako Gobernuaren eta erakunde terroristaren arteko elkarriketak parte izan behar duenik biolentzia odoltsuaren kapitulu luze eta tragikoa ixteko azken akordio arazoizko bat lortzeko demokrazia eskuzabal izatea beste hariko ezpala da, nabardura eta xehetasun asko izan ditzakeena.

Printzipio hauetan bat

EDITORIALA

# UZENDARIARI

## Dagokionari

Abuztuaren 27an, goizeko bederatzik eta laurdenak inguruan, Karraspioko hondartzako ur ertzean genbiltzan dozena erdi pasealariok sokorru deiak entzun ditugu, ito beharrean zeuden bi pertsonarenak ziren.

Sartu, danok sartu gara bapatean uretara baina dzingoa handitu ahala igeri zekiten biek bakarrik egin dute aurrera, besteok igerilari gehiagoren bila eta flotagailuren bat non aurkituko hondartza arakatzeari ekin diogularik.

Erresakak, itotzearen urduritasunak eta igerilarien sorospén lanetarako esperientzia urriak lana nekeztu ez ezik une batzuetan arriskutan ere jarri izan du, bazi-rudien zirkinik ez zutela egiten, beti zeudela

leku berean, sekula ez zirela lehorreratuak.

Ordu onean bururatu zaio bati Sorostetxean egin beharko zukeela 'salbavidasen' batek, baina soroste ofizialen ordua hamarretan hasten denez, Sokorru-etxea itxita egon da. Zer egin? Ateko kristala apurtu, salbaberakoa hartu eta biziak salbatu.

Salbaberakoa eskuratu denaroko, igerileriek atera dituzte itotzearen zeudenak, baina igeri zekienik gertatu ez balitz ur ertzean?

Komediak, ordea, gero hasi dira. Sokorru-etxea zabaldu dutenean, Beraien lan orduetatik at salbaberakoa kanpoan utzi ditzatela iradokitzena joan gatazkitzuenen, kristalak norik apurtu dituen besterik ez dute entzun nahi izan Soroste ofizialek.

Geroxeago ohar bota dute bozgorailue-


tatik ondokoa esanez espainol hutsez: «Gaur goizean Sorostetxeko kristalak apurtu dituzten heroiak pasa daitezela bertotik mesedez».

Sorosle lanetan ibili izan direnak joan direnean gauzak azaldu asmoz, besteak beste honako bitxikeriak entzun behar izan dituzte soroste ofizialen ahotik, espainol hutsez hauek ere: «Hamarrak aurretik bainatzena doana beraren erantzunkizumaren pean doala eta salbaberakoa hartzeko kristalak apurtu baino lehen itotzen urri behar zitzaizela». Dagokionak har ditzala hartu beharreko neurriak.

FERNANDO GARATEA  
TXABI ARTEAGABEITIA  
Lekeitio (Bizkaia)

# GAIA JARRITA

## Maastrichti buruz erreferenduma



# MAASTRICHT

Izango gara ala ez gara europarren tarteko, baldin bagara zein baldintzatan edota zer egiteko. Aizu Felipe, egizu kaso, ez da izango kateko: aurrera eman argibideak zer pentsa eragiteko eta ondoren bozketu egin zer nahi dugun jakiteko.

ANDONI EGAÑA



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administratzaio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIEZ ETXEHARRRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Eredakzioa eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pabillak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna. 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Lekeiti. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irritzi dorea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaila. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11